

## Aroa Murcianok jasoko du aurten doktoretza aurreko beka

2012/09/28

HUHEZIKo Doktorego Batzordeak arakatu du eskatzaileek betetzen dituztela deialdian ezartzen diren baldintza guztiak, bereziki bertako bigarren puntuak agertzen den bezala, Eusko Jaurlaritzak ikertzaileak prestatzeko 2012-2013 ikasturterako irekiko duen doktorego aurreko beken deialdira aurkeztua eta prozesuan onartua izatea.

Onartutako hautagaien merituak baloratu ondoren, batzordeak deialdi honen behin betiko esleipena egin du. Horrela 2012-2013ko HUHEZIKo Doktoretza Aurreko Laguntzetarako Programaren esleipenduna **Aroa Murciano Eizagirre** izango da.

